

Enpresa eredu berezia 102-1; 102-2; 102-5; 102-7



EROSKI, kooperatiba izanik, kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituen txikizkako lehen banaketa taldea da Espainian, eta erreferentziako operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Taldearen enpresa nagusia EROSKI Koop. E. kontsumo-kooperatiba da, honako hiru ezaugarri hauek dituena: banaketa enpresa bat da, kontsumitzaileen antolakunde bat da eta proiektu kooperatibo bat da, eta kontsumitzaileek eta langileek protagonismoa eta subiranotasuna partekatzen dute.

helburu horrekin lerrokatuta eduki dugu, erakundearen estrategiaren eta, oro har, langileen eta kontsumitzaileen eskaeren arteko lotura eraginkorra ziurtatzeari esker.

Gaur egun, kooperatibak eta EROSKI Taldea osatzen duten haren mendeko beste 27 sozietateek garatzen eta kudeatzen dute gure negozioen sare komertziala eta horiek finkatzen dira taldearen finantza-egoeretan. Sozietateen zerrenda memoria honetako Gardentasuna izeneko 8. atalean kontsulta daiteke.

EROSKI duela 50 urte sortu zen, zazpi kontsumo-kooperatiba txikik bat egin zutenean kalitatezko produktuak prezio onean lortzeko eta kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko helburuarekin. Orduetik, gure enpresa-estrategia



EROSKI Taldeko 28 sozietateen organigrama eta EROSKI Kooperatiba Elkarteak 2019ko ekitaldi amaieran haietan duen partaidetza, ehunekotan

